

ZAZPI BEI ABAROTAN

Gergoriok domeka-arrastietan Ipiñe´ko errosariora utsik ez oan eiten. Emeti bere lagunek erreziicak edaten yoaten bazirean be, berak basorantza eiten oan, batzuetan basabeyek ikusten, auntsietara baste batzuetan. Zize-denporan, ostera, zize-bille yoango yakun, andrea ta semealabakaz sartenkada batzuk yateko.

Domeka-bazkaloste baten, errosario-ostean zizetan yoan bear dala-ta, iduneko pañelo bat eskatu eutson Barbara bere andreari. Errosarioa amai tu takoan ba-doa, ba, berak ekizen zize-lekuetara, ta ara non aurkituten dauen ikaragarriko zize bat, bere azpien zazpi bei abarotan eukezana. Zizetzar on ikusi oan orduko, esan ei-oan berekotan: Zizetzar au pañeloan eroatekoa eztok, bai, to bake-bakean bertanixite, noan etzera; biyer astoa ta sakuekaz etorriko nok berori eroaten".

Ba-doa urrengo goxean astoa ta sakuekaz barriro besperako zizetzarren bille; baye bera eldutorduko, Felix Ipizarkon ardiek geyena yanda birrindurik ei-eukien. Zakuok astoganean imini, euren ganean bera ezarri, ta txistu-soñuen bere etzera sartu ei-zen.

BERE BIZIKO BIRAORIK ANDIYENA

Barbarak eta Gergoriok sei seme-alaba guztiz eder ta mardoak azi eudiezan. Eurok indertsu ta sendo azteko, soloko bearraz ganera basolan batzuk be ein bear zituzen Gergoriok. Esaterako, urtero artzean oan ikezgintzetxoan bat, eta soloan bearrik ez eukenetan, sarri ixengo zan basora egur txikertan.

Bein, onantxe egun-txikertan zoli ta gogatsu ibillela, azkora-kirtena garri-garriti zati bi ein yakon. Ezbear onek sutu oan Gergorio, berotxoa be ba-zanda. Ta azkora on lurrera yaurtin, da begiek gora begira iminirik, azkora-kirtenari bere biziko birao ikaragarri au bota eutson; itxarri makera gorriek ezkurre intzanean yan baidu! Auxe ixen ei-zen bere bizien bota oan biraorik andiena.

Birao ta sualdi au gorabera, ez ei-oan azkora-kirten ori, orraitio, basoan itxi; gomutegarritzet baiño ezpazan be, sakuen sartu ta etzera ekarri ei-oan eta beragaz eineko eskutille-ortz ederren batzuk urten ei-eutsien.

JUAN DOMINGO IBARGUTXI´KO

Eskolati argi larregi atara ezpaoan be, Juan Domingok goiko Yaunek emoniko argitasunik ba-euken; esaten yakona zur entzunde, gauze sakontxoia ixen arren be, beingoan artzean oan.

Aurrekoari entzuckeran begi-belarriek zur ixengo oazan; beatzeta burureiño baten baiño geyo begituko eutson, eta ondo gogotan artuko oan esaten eutsiena ze berbakaz azalduten eutsien be, ta etxakon ezer aiztuten. Au egiztetako, ona yazokun bet.

Juan Domingok eztabaideko gorabera guztiek lege-gixonen bitar tez argitutea gure ixeten oan. Olango baten, irurogeta amar urtean gora zala, sarritan yoan zan lez, euskeraz ondo egiten oan lege-gixon bategana yoan zan. Sartu zan,. ba, lege-gixone-gana, ta txapela kendu ta badiñotso:

-Egun on.

Eta lege-gixonak berari: daungoikoak emon, erantzunde, mayen aurrez-aur ezarriazo ta dirautso:

«, Zer dakazu, Juan Domingo?

Juan Domingo bere eztabaidearen goraberak agertu ta argituten asi yakon, noizik bein dirautsala:

-Entzuten deust, yaune?

Ba-dantzut.

Arik lasterrera barrero:

-~Baye gauza au ondo ikusten dau, gero?

-Ba-dakust, erantzuten deutso lege-gixonak.

Eta azkenez, ba-diiotso Juan Domingo'k•

-Zeinbet papel emoten deustez, yaune?

Bat bakarrik damotsut.

Orduen ba-dautso Juan Domingo'k:

-Yaune, zelango berbeta darabil bedorrek?

-Zelango berbeta eiten deustudan? Ba, euskera garbie. -Oin olan ezta eiten, dirautso Juan Domingo'k.

-Len bai, ala?

Orduan Juan Domingo'k; «Egie esan, len bai; atxine baten olantxe eiten zan. Oin irurogeta urteak direala, olantxe eiten zan euskerea Orozko'n.

JUAN DOMINGO ASMOZ ZUZENA

Solo-lanetarako etzan asko estutu ez artegatuko Juan Domingo baye basorako berarizko zaletasune euken.

Ikustekoak egoten zirean bere basoak, bai mats korta, bai makatz; garrazta ta guztiek. Sarri zen basoan edo landara-sartzen, edo landara yorran, bai arratutea, bai mentatuten, bai beste erlozein bearretan. Auaaiti ederrrenetarikoak zirean bere basoak.

Bein baten, ba-dator ardi zarrak saldu eutsiezan etze batera, eugerd-inguruko, Pio Santa Engraziekoa; ardi zarren dirue ekarren

Bazkal-ostean, bare diruek emonda, bere etzerantza urten deu. Orduen andreak badiñotso ardi-dirue artu oan gizonari: Mutikoak oiñetako txarrakaz darabilguz-de, zoaz erre ta oiñetako barri batzuk ekarri yozuez, eskolara oiñetako onakaz dabiltezan». Eta gixen orri eunelo bat emon eutson.

Andreen esana eitearren, ba-doa gixona gogorik onenaz erre; emen oiñetakoak erosi ditu, ta eurok ordainduteko, euneko ori ataraten doala iaren lotsarie! Etzan agiri eunekorik; ez euken aldean dirurik Bidean galdu oan. Biurtzen da etzerantza ta bide guztien lurrera begire doa. Ilun-abartxoan, aurrez-aur baraganantz datorrela gixon bat ikusi dau. Nor eta zan? Gure Juan Domingo. Arkali gau onak emon deutesiez, ta goatu deutesie berbaz. Nondi nora, Juan Domingo?»-Mats-kortati nator, landara batzuk yorratuten egon naz-da. Eta, zu? Artegatxo zatoz. i, Zer yazoten yatzu? Eta gure gixon onek: Bai, estu nago, egon be; etzera be bildurrez noatzu. Ara; gaur eguerdien, egin-eginean be, Pio etorri yaku ardi zarren dirue emoten. Nire andreak, mutikoetzat oiñetako barriek bear doguzela, euneko bat emonda. erre bialdu neu. Ta euneko on eztot, ba, bidean galdu?» Ori entzundakoan Juan Domingo´k ba-diñotso: «Etzate bape estutu, gixona; diru ori neuk aurkitu dot). I Non aurkitu dozu, ba?» — Ara; zoaz urlie lekuko gaztaiñ-ondora, bai, ta antxe daukazu, ondoan arritxo bat imini deutset». Gixon orrek ikeratute dirue bertan itxi oala-ta, ba-diñotso: Artu egin bear zendun, Juan Domingo. Baya onek esan eutson: «Nik ez artu, Nik ein dodana danak eiten ba-daurie, yaubeak antxe aurkituko deu» .

Erantzun onetati atarako dozue Juan Domingo ze asmo onekoa zan.

Gure lenagoko zarrak onangoxeak ixaten zirean: aurrekoari ezetan kalterik ez eitekoak; lagundu, barriz, al euden guztien. Baite, txarriek erosteko nai baste edozetarako, dirue erreziho barik emoten be

ba-ekien, lagun urkoa norbera langoa zala uste eudielako. Gaur, oster, asi deukienetati ta ezteukienetaraifio, diruen egarnen egarriaz, gizarte guztie erreta eztakuzue?

Arratia´ko ipuiñak

Irakurlea: Josu Aginaga Gorospe (Dima)